

Sagardoa eta herri kirolak, Santa Ana egunean protagonista



Sagardoa, herri kirolak eta artisautza erakusketa dira Astigarrako herriko festetako Santa Ana eguneko osagai nagusiak, datorren uztailaren 26an.

Astigarragako sagardogile guztiak izango dira bertan, batez ere baserritarrei zuzendutako jardunaldi

honetan, ardatz nagusia sagardo dastatzea izaten baita. 1976an ospatzen hasi zen dastatze hau, Euskal Herrian egiten denetan zaharrena da.

Festari hasiera sokamuturrak emango dio, goizeko 07:30etan, eta Iturengo joaldunen emanaldiak, eta ondorenean hasiko da Santa Ana eguneko festa. Foru Plazan elkartuko dira sagardo dastatzea, artisautza erakusketa, idi demak eta bertsolariak, eta goizari bukaera herri bazkariak emango dio.

Arratsaldean, herri kirol probek osatuko dute jardunaldia, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

Sagardoetxeak, Euskal Sagardoaren Museoak

Sagardoetxea, kultura, turismoa eta gastronomia gunea. Sagardoetxeko egoitza ondoan, sagardoaren museoa eta interpretazio zentroa dago, fruta honen sekretu guztiak gordetzen dituena, munduan gehien zabaldua eta ugariena, eta generazio askotan euskaldunen sostengu izana.

Museo sagastia, Sagardoetxeko bigarren gunea didaktikoa da eta Euskal Herriko sagar mota desberdinak ezagutaraztea nahi du, eta sagarrondoan kondukzio sistemak denboran barrena izan duten garapena erakutsi.

Sagardoetxeak kultur jardunaldi proposatzen dizkizu

Txotx bolada
Sagastiak loretan
Santa Ana: sagardoa eta herri kirolak
Sagar Uzta, festa Astigarragan
Tolareko lanak

Sagardoetxeak, Euskal Sagardoaren Museoak, zenbait kultur jardunaldi proposatzen dizkizu, aisialdia, turismoa eta gastronomia ezagutzeko, Euskal Herriko ohiturarik zaharrenetako bat gozatzeko aukera, natura ezagutu, errespetatu eta sagardotegietako bere eskuzabaltasuna gozatzeko, kupel artean eta mahai eder baten bueltan.



Sagardoetxea sagardoaren kulturaz gozatzeko leku bat da, euskaldunen identitate eta ohituren ezaugarri. Naturarekin harremanetan ikasteko leku bat, ikusi, ukitu eta dastatuta... Txotx!

Harpidetza

Sagardoaren museoa
Museo de la sidra
Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga · Gipuzkoa
Tel. 00 34 943 550 575
info@sagardoetxea.com
www.sagardoetxea.com



EUSKADI
atseden bezalaz
don muchísimo gusto

GIPUZKOA
NABE FORTAL, NABE HERREA
TAN PROPIAL, TAN GRANDE

ASTIGARRAGA
Astigarragako Urdia